

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA (PERTSONA BAT ETXEAN LAGUNTZERA ETORTZEN DA)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Adingabea -18 desgaitasunarekin > Laguntza etxean eta/edo bizitza autonomia izateko

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak (I., II. edo III. gradua).

Kostua

Erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du, bere egoera ekonomikoaren eta beharrezko arreta-orduen arabera.

Baldintzak

Mendekotasun **akreditazioa**.

Legezko egoitza edo **errolatzea**.

Zertan datza?

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren (ELZ) helburua da etxean bizitza autonomia izateko zailtasunak dituzten pertsonen eta familien beharrak asetzea ([1.2 fitxa](#)). Horretarako, ELZk laguntza profesionala eskaintzen du etxean, mendekotasuna duen pertsona bat egunero zaintzeko arreta pertsonaleko zereginetan (adibidez, laguntza ematen du elikadurarekin, higiene pertsonalarekin eta garbiketarekin, mugikortasunarekin, edo jantziekin, altxatzeko eta oheratzeko laguntza, eta abar) edo etxeko lanetan (etxea garbitzea, mantentze-lanak egitea, arropa garbitzea eta lisatzea, otorduak prestatzea, etab.).

Norentzat?

Mendokorasun egoeran dauden pertsonak (I., II. edo III. gradukoa). Baita, kasu batzuetan, mendekotasun arriskuan dauden pertsonak ere.

Zenbat arreta ordu jaso ditzaket?

Ordu kopurua **mendekotasuna duen pertsonaren behar mailaren arabera da**, betiere araudiaren mugen barruan.

Zenbat balio du zerbitzuak?

ELZk koordainketa du, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta behar dituen arreta-orduen arabera.

ELZ jaso dezaket beste zerbitzu edo prestazio bat jasotzen ari banaiz?

Bai, **ELZ bateragarria da beste zerbitzu eta prestazio batzuekin**, egoitza-arretarekin izan ezik. ELZ beste zerbitzu edo prestazio batzuekin bateratzen denean, prestazio horien zenbatekoa edo intentsitatea murriztu egiten da (telelaguntza-zerbitzuan izan ezik).

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Mendekotasun balorazioa izatea

Euskadin **legezko egoitza izatea edo udalerrian erroldatuta** hamabi hilabete baino gehiago eramatea.

Eskatzaileak bertan egoteko moduko **etxebizitza egokia izatea**.

Osasun-arreta jarraitua behar duen **osasun-arazorik ez izatea**

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

[Kontsultatu informazio osoa](#)